

Ordizian, 2015eko azaroaren 23a, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Aparteko bilkuran. Honakoak bertaratu ziren:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: José Miguel Santamaría Ezeiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras
Igor Eguren Izagirre
Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca jauna

EAJ/PNV
Ordiziako EH Bildu
Ordizia Orain
Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK: Inor ez.

IDAZKARIA: Iker Rocandio Etxeberria

Bertaratu da, ere, gonbidatu gisa eta bozkatzeko eskubiderik gabe, Carlos Gonzalez jn., Ordizia Irabazi taldeko ordezkaria.

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK



ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:28

AMAIERA ORDUA: 16:32



Lehendakari jaunak eman dio hasiera saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- Legealdirako plangintza

Udalak kontratatu duen IETEA enpresako kide batek azaldu du zein izango den berarien papera legealdirako plangintza egiterako orduan: beharrak analizatu, helburuak jarri, lanak egiten lagundu, etabar.



2.- Hondakinen bilketa.

Eztabaida sortu da, EAJ eta PSE-EEko Ordiziako bi kidek idatzi duten artikulua bat dela eta. Sasieta Mankomunitateko tasei eta Udalen zorrei buruz iritzi ezberdinak eman dira eta, orohar, hondakinen bilketa gaien alderdi bakoitzak dituen erantzukizunei buruz.

Kontsultari buruz, Igor Eguren bere taldeak Ordizia Orainekin kontsentsuatu duen proposamen idatzi bat aurkeztu du, gobernu taldeak eginikoa osatze aldera.

Kronograma bat egin beharri buruz hitzegin da.

Bilera berri bat izango da datorren ostegunean.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.